

FAMILIENDAKO INFORMAZIO OROKORRA

6/2017 Urtarrilaren 30 Ebazpenean aurreikusitako prozedura 2016-2017 ikasturtean ikastetxean matrikulaturik ez dauden haurrei aplikatuko zaie, ikaspostua erresebatzen duten eta Haur Hezkuntzako ikastetxea dagoen udalerrri berean bizi ez direnek hartu beharko duten ordainketa konpromisoaren gainean 4.1 oinarrian xedatutakoa izan ezik.

Ikaspostua eska dezakete:

- 2015ean eta 2016an jaiotako haurren gurasoek edo legezko tutoreek, eta 2017an jaiotako haurrenek urte bat baino gutxiago duten haurrendako instalaziorik badago.
- Erditzeko aurrez ikusitako data egiaztatzen duen mediku-agiria aurkeztuta, euren jaiotza 2017-2018 ikasturtearen hasiera baino 16 aste lehenago baino lehen aurrez ikusia duten haurren gurasoek.

Ikastetxeetan hasteko, haurrek 16 aste beteak izanen dituzte, edo urtebete ikasturtea hasi baino lehen baldin eta ikastetxeek urte batetik beherako haurrentzako instalaziorik ez badute.

Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, horren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

ESKABIDEAK

AURKEZTEKO EPEA: 2017ko MARTXOaren 1etik 15era
TOKIA eta ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara
Barañaingo Udaletxean, Herriarrak Hartzeko Bulegoan

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

a) Gurasoen edo legezko tutoreen NANaren, pasaportearen, atzerritarrentzako bizitoki-txartelaren edo balio bera duen nortasun-agiriaren fotokopia.

b) Gurasoen edo legezko tutoreen lan-egoera eta/edo egoera akademikoa justifikatzen duten agiriak.

- Lan-bizitzaren ziurtagiria, izena aurretik emateko aldia bukatu aurreko 30 egunetan Gizarte Segurantzaren alta emanda zegoela egiaztatzen duena. Eskuratzeko moduak.
 1. 901 50 20 50 telefonoa
 2. www.segsocial.esEnplegatzailearen zinpeko aitortpena edo ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzako araubide berezietara lotuak dauden lan-egoerak justifikatzeko, langilea araubide horretan alta emanda dagoela frogatzen duen agiria aurkeztuko da, bai eta enplegatzailearen edo enplegatzaileen egiaztagiria edo zinpeko aitortpena ere.
- Norberaren kontura lan egiten duten profesional liberalen lan-egoera justifikatzeko, dagokion mutualitatean alta emanda dagoela frogatzen duen agiria, lizentzia fiskala eta zinpeko aitortpena aurkeztuko dira.
- Eskaerak aurkezteko unean ikasten arituz gero, matrikularen frogagiria, ikasturteko egutegia eta ordutegia aurkeztuko dira.
- Eszedentzian egonez gero 3 urtez beherako semea edo alaba zaintzeagatik, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztuko da eta idatziz azalduko da lanera itzuliko dela ikasturtea hasi ondoko hilabete eta erdian beranduenez, lan-egoerari dagokionez jarduneko langiletzat hartua izateko. Ikasturtea hasi ondoren itzuliz gero, lanera itzuliko da ikaspostua eman ondoko hilabete eta erdian beranduenez; kasu horietan, eta behin lanera itzulita, enpresa ziurtagiria aurkeztu beharko da, lanera itzuli den eguna frogatuko duena.
- Langabezian egonez gero, enplegu-eskaerako txartela.

c) Familiaren osaera frogatzeko agiriak:

- Familia liburuaren fotokopia (gurasoak eta seme-alabak) edo, halakorik ez badago, antzeko agiri ofiziala osorik.
- Familia unitateko edozein kideren desgaitasuna frogatzen duen agiria, ikastetxean onartua izateko eskatu den haurrarena izan ezik, edo familia unitateko kideren bat Gizarte Segurantzako pentsioduna dela, ezintasun iraunkor osoko, absolutuko edo baliaezintasun handiko pentsioa aitortua duena, frogatzen duen dokumentazioa.
- **Familia gurasobakarra dela frogatzen duen agiria.**
- Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.

d) Errenta mailak frogatzeko agiriak.

- Gurasoen edo legezko tutoreen azken errenta aitortenaren fotokopia. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena egin beharrik ez badute, errenten edo diru-sarreraren zinpeko aitortpena eta/edo ikastetxearen titulartasuna duen toki entitateak beharrezkotzat jotako agiriak aurkeztu beharko dituzte familiak 2015. urtean izan dituen diru-sarrerak zehazteko, edo 2016. urtekoak, onarpen prozesua 2017ko ekainaren 30etik aurrera hasten bada. Interesdunak bi aukera izanen ditu: dokumentazioa berak aurkeztea, edo entitate titularrari baimena ematea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barrenean eskumena duen unitate organikoari edo departamentuari behar den dokumentazioa eska diezaion. Baimen hori instantzia bidez eman beharko da, deialdian dokumentazioa aurkezteko ezartzen den epearen barrenean, eta agiria noiz eta zein organotan aurkeztu zen adierazi beharko da.

- e) Aitaren, amaren edo legezko tutoreen bizitokia edo lantokia eragin-eremu geografikoan dagoela frogatzen duen dokumentua.
- Erroldatze agiria, zeinetan agertzen den haurra eta aita, ama edo legezko tutoreak udalerrian erroldaturik daudela 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenago.
 - Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeko zuzendaritzaren ziurtagiria, eskatzaileak bertan lan egiten duela adierazten duena.
 - Aitaren, amaren edo legezko tutoreen lantokia zein den frogatzen duten agiriak.
 - Bizitoki aldaketa dagoen kasuetan etxebizitza berria ikasturtea hasi aurreko data batean emanen dietela adierazten duen egiaztatzea baloratuko da. Kasu horretan, gaur egungo bizitokia zein den adieraziko da, jakinarazpenetarako, eta bizitoki berria, berriz, baremazioa egiteko.
- f) Sarbide zuzenerako baldintza bereziak betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa.
- Haurraren desgaitasuna kalifikatzen duen ziurtagiria edo haurraren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztatzea eta/edo profesional batek egindako txostena, zeinetan deskribatzen diren hezkuntza premia berariazkoak ekar ditzaketan ezaugarriak.
- g) Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak. Medikuaren, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu beharko da inguruabar hori frogatzeko.
- h) Haur eskolaren titularrak den udalak ahalmena izanzen du beste herri batzuetako haurrak ez onartzeko, ez badute idatziz adierazten bizitokia duten herriko udala edo familia bera prest daudela udal titularrari dagokion moduluaren ehuneko ordaintzeko.

ZERRENDAK ARGITARATZEA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2017ko maiatzaren 5a

ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA: 2017ko maiatzaren 5etik 11ra

Hautapen Batzordeari zuzenduta, behin-behineko zerrendetan agertutako puntuazioa berrikusteko zergatik eskatzen den azalduz. Ezin izanen da inolaz ere zuzenketarik egin hautapen baremoan puntuazioa ematen duten agirietan.

BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2017ko maiatzaren 19a

NON KONTSULTATU (BEHIN-BEHINEKO eta BEHIN BETIKO ZERRENDAK): UDALAREN IRAGARKI-OHOLA, 012 TELEFONOA, HAUR ESKOLAK, www.baranain.es baranain.eus

MATRIKULA

MATRIKULA EGITEA: 2017ko maiatzaren 19tik 26ra

Tokia: Barañaingo Udaletxean, Herritarrak Hartzeko Bulegoan

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako kartillaren edo txartelaren fotokopia.
- Matrikulan ezarritako kuota ordaindu izanaren egiaztatzea.
- Beste herri batean bizi diren haurren kasuan, udalari dagokion moduluaren ehunekoaren finantzaketaren frogagiria. Finantzaketa hori bizitokia duten herriko udalaren edo familiaren beraren kargura izanzen da.
- Gurasoen edo legezko tutoreen 2016ko Pertsona fisikoen errentaren gaineko aitortpenaren fotokopia. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena egin beharrik ez badute, errenten edo diru-sarreraren zinpeko aitortpena eta/edo ikastetxearen titulartasuna duen toki entitateak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak aurkeztu beharko dituzte familiak 2016. urtean izan dituen diru-sarrerak zehazteko. Agiri hori aurkezteko eguna 2017ko ekainaren 30era arte atzeratzen ahalko da.
- Ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kartilla-orriaren fotokopia, titularrak eta zenbakia agertzen dituenak.
- Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.

OHARRAK ETA DATUAK EGIAZTATZEA

- Matrikula bat egiten ez bada ezarritako epean, beste esleipen bat eginen da itxarote-zerrendako ordenari jarraituz.
- Alegatzen den egoerari buruzko frogagiriak aurkezten ez badira, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.
- Egiaztatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, hango puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko da.
- Hautapen Batzordeak zilegi izanen du edozein unetan frogagiri gehiago eskatzea hautapen baremoan puntuazioa duten egoerei buruz.

TARIFAK

Tarifak aplikatuko dira 2017-2018 ikasturterako tarifak arautzen dituen Hezkuntza Departamentuko araudian ezarritakoarekin bat.

BAREMOA

A) Gurasoen edo legezko tutoreen lan- eta gizarte-egoera edo egoera akademikoa

a.1) Haurren gurasoak edo legezko tutoreak jarraian adierazten diren egoeretako batean daudenean, 20 puntu:

- Guraso edo legezko tutore biak lanean ari direnean.
- Guraso edo legezko tutoreetako bat lanean ari bada eta bestea lehentasunezko dedikazioa (behar bezala justifikatuta) eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari denean.
- Guraso edo legezko tutore biak lehentasunezko dedikazioa (behar bezala justifikatuta) eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari direnean.
- **Familia gurasobakarra lanean edo lehentasunezko dedikazioa (behar bezala justifikatuta) eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari denean.**

a.2) Guraso edo legezko tutoreetako bat lanean edo lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari bada eta bestea lan bila ari denean, 15 puntu.

a.3) Guraso biak lan bila ari direnean, 10 puntu. Familia gurasobakarren kasuan, 15 puntu.

B) Familiaren osaera, puntuazio metagarria gehienez: 15 puntu

b.1) Modalitateak:

- Deialdi berean bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat ikaspostua eskatzen bada ikastetxe berean (ikaspostuaren erreserba eta jaio gabeendako eskaerak barne), 15 puntu.
- 6 urtetik beherako bi seme edo alaba edo gehiago dituzten familien kasuan, puntu bat haur bakoitzeko. Soilik hartuko dira kontuan izena aurretik emateko epea bukatu aurretik jaiotakoak.
- Familia gurasobakarrak, 5 puntu.
- Familia unitateko kideren batek %33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoa aitortua badu, 4 puntu.

C) Familia unitatearen urteko errenta-mailak, puntuazio ez-metagarria: 15 puntu

Errenta-tarteak eta puntuazioa:

- LGS x 1,5 arte: 15 puntu
- LGS x 1,7 arte: 12 puntu
- LGS x 2,8 arte: 8 puntu
- LGS x 3,9 arte: 4 puntu
- LGS x 3,9 baino gehiago: 0 puntu

D) Eragin-eremu geografikoa, puntuazio metagarria gehienez: 20 puntu

- Haurra eta aita eta/edo ama eta/edo legezko tutoreak 2017ko urtarrilaren 1a baino lehen eskaeraren xedeko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxea dagoen herrian edo eragin-eremu geografikoan den herri batean erroldatua egoteagatik: 20 puntu
- Aita, ama edo legezko tutorea eskaeraren xedeko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxea dagoen herrian edo haren eragin-eremu geografikoan lanean aritzeagatik: 8 puntu
- Aita eta/edo ama edo legezko tutorea entitate titularraren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe batean lanean aritzeagatik: 5 puntu

E) Beste irizpide batzuk. Hautapen Batzordeak beste behar larri batzuk, pertsonalak, familiakoak edo sozialak, behar bezala frogatuak eta aurreko ataletan bildu gabeak, hartzen ahal ditu kontuan: 10 puntu, gehienez ere.

F) Puntuazioko berdinketa kasuak ebatzea. Baremoa aplikatuta, adin talde bakoitzerako eskaintzen den azken ikaspostuan berdinketa gertatuz gero, egoera ebazteko irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

- Ikastetxean anai-arrebak dituzten haurrak
- Familiaren errenta txikiena
- Hautapen Batzordeak eginiko zozketa